



DESGAITASUNAREN AURREKO KIROL-ARRETA GIPUZKOAKO EREDUA.

EKIMEN ETA ZERBITZUAK



1. SARRERA.

Gizarteak desgaitasuna duen herritarren jarduera fisikoa eta kirol sustapenean dituen konpromisoak sendoak eta irmoak izateaz gain, bi aldeetarako onurak dituen ibilbidetzat ulertzen da hau. Behar berezi horiek direla-eta, programa eta ekimen zehatz batzuk martxan jarri dira; eta jada, hainbat udalerritan aukerak eskaintzen ari dira.

Hala ere, Gipuzkoan eskaintzen den arreta egituraketa prozesu baten barruan dago eta ikuspegi integral batetik, aukera dago egoera hobetzen segitzeko. Hori izan dugu Gipuzkoako Eredua eraikitzeke asmo nagusia: programa zehatz batzuetatik, politika sendo eta argietara eramatea. 2017an, udal kirol teknikariak, Kirol Egokituaren Federazio eta Hegalak Fundazioarekin eredia partekatu egin zen. 2018ko helburua bete zen **DESGAITASUNAREN AURREKO KIROL-ARRETA GIPUZKOAKO EREDUA** aurrera eramatean. Batetik, politikak eta irizpideak garatu eta partekatzea; eta, bestetik, zerbitzu konkretuak martxan jarriz hori bideratzeko. Eta 2022an, **ESKOLA ADINEKO KIROL INKLUSIBOAGO BATEN ALDEKO GIDA** argitaratu da. Urte honetarako helburua Gipuzkoako eredia zabaltzea eta eremu gehiagotara heltzea izango da.

Estrategia hau **Mugiment Gipuzkoa** biritza aktiboa sustatzeko eta sedentarismoari aurre egiteko politiken parte da. Estrategia honen ardatz nagusia da pertsonen bizi-ohituretan eta jokabidean aldaketa eragitea.

Horretarako, estrategia honetatik garatuko ditugun esku-hartze guztiek kontuan hartuko dituzte beti gipuzkoar horien faktore sozialak. Horregatik, estrategia honetako programen ondorioz, bai zuzeneko kirol-eragileek bai faktore sozialetan eragiten duten eragileek batera eta zeharka lan egiten dute, batez ere osasunean, gizarte-ekintzan eta hezkuntzan.

Programa horien antolaketa irizpide nagusian, kirol- eta jarduera fisiko egokituko jardueren kategorizazio eredu bat dago. Kategorizazio sistema bat egituratu dugu egun egiten diren eta egingo diren ekintzak antolatu eta sailkatzeko: SARTU-SEGI-ONGISEGI-HOBESSEGI.

SARTU. Zerbitzu normalizatueta inklusio eraginkorra bermatzeko esku-hartzeak izango dira. Zerbitzuetako moldaketak sarbidea ahalbidetzeko ekimenak: inguru erraztatzaileak sortzea, orientazioa ematea, prestakuntza, gidak egin eta hedatzea,...

SEGI. Jarduera fisiko egokitu eta gidatuko programa kolektibo bereiztuak dira. Praktika normalizatuan sartzeko aukerarik ez dagoenetan antolatzen diren ekintzak dira.

ONGISEGI. Programa indibidualak. Jada mendekotasunari aurre egin behar ez diotelako, edota mendekotasun baxua dutelako (fisioterapia laguntzarik ez zaie ematen). Segi programara jauzi egiteko hastapen eta laguntza iragankorreko programak dira.

HOBESSEGI. Ezintasun ekonomiko handiak dituzten eta mendekotasun maila altuko senidea duten konbixentzia unitateei zuzendutako programa. Jarduera fisikoa eta fisioterapia laguntza uztartuta jasotzen duten programa indibidualak dira. Iragankorrak ere. a pertsona hurrengo mailara igotzen ahalduentzea.

Gipuzkoarron 10etik 1 gara desgaitu izendapena jasotzen dugunok. Aurkeztu dizuegun eredu integratzaile horrekin, jendarte alor honetan ere, sedentarismoari aurre egiteko baliabideekin eragingo dugu. Modu horretan biritza aktiboaren ateak irekita daudela herritar orori bermatuz.

* Ekimen hau, jarduera fisikoa bultzatzeko Aldundiak beste eragile batzuekin batera garatzen ari den Mugiment-Gipuzkoa programa barruan dago eta sortzen diren gastuak kasu batzuetan Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontuaren bidez eta beste batzuetan, eragile eta eskatzaileen artean kudeatzen dira.



2. EKIMEN ETA ZERBITZUEN AURKIBIDEA:


0. [DESGAITASUNAREN AURREKO KIROL-ARRETA. GIPUZKOAKO EREDUA.](#)
1. Kirol egokituko eskaintzei, baliabideei eta laguntzei buruz hiritarrei aholkularitza.
2. Udaletako eta klubetako ohiko kirol eskaintzan parte hartzeko laguntza-zerbitzua.
3. Eskola Kirol Egokitua.
4. Eskola Kirol Inklusiboa.
5. Eskola kirol Egokituaren gida.
6. Gipuzkoako Kirol Orientazio Zerbitzuak eta bideratzea.
7. [Hegalak Fundazioa](#): Segi eta [Hobeseji](#) programa.
8. Desgaitasuna duten pertsonentzat kirol jarduerak sustatzea: Udal, Ikastetxe eta Klubetarako diru-laguntzak.
9. Gipuzkoako kirol egokituko lehiaketa ofizialak antolatzea.
10. Kirol egokituko kirolarien teknifikazio programa.
11. Etorkizuneko eta talentudun kirolariak.
12. [Kirolgiko programak](#): goi mailako kirola.

Eranskinak.-





0. DESGAITASUNAREN AURREKO KIROL-ARRETA. GIPUZKOAKO EREDUA.





EKIMEN ETA ZERBITZUEN SORTA.

1. Kirol egokituko eskaintzei, baliabideei eta laguntzei buruz hiritarrei aholkularitza.

ZER: Herritarra, norbanako bezala, kirol-egokituko antolaketa eta eskaintzari buruzko arreta eta aholkularitza zerbitzua jasotzeko aukera izango du [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#)ren bidez.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Herritar oro.

NOLA: Bertatik bertara, posta elektronikoa edota telefono bidez.

NON: [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#).

BALIABIDEAK: 100 ordu.

INFORMAZIOA: [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#). 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: SEGI / SARTU.

2. Udaletako eta klubetako ohiko kirol eskaintzan parte hartzeko laguntza-zerbitzua.

ZER: Aldundiak laguntza zerbitzua eskaintzen die udal eta klubei, [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#)ren bidez, desgaitasuna duten herritarrek ohiko kirol jardueretara txertatzeko berriazko laguntza eta aholkularitza eskainiz.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Gipuzkoako udalak eta klubak.

NOLA: Telefono edo posta elektronikoa bidez.

NON: [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#).

BALIABIDEAK: Aldundiak urteko 130 ordu.

INFORMAZIOA: [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#). 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: SEGI.

3. Eskola Kirol Egokitua.

ZER: [Gipuzkoako eskola kiroleko programaren](#) barruan jasotzen den eskaintza. Hainbat eskualde eta herrietan, eskola-kiroleko eskaintza normalizatuak bere egin ezin dituen eskola-umeentzako, eskaintza desberdin eta desberdin bat garatzen ari gara.

NORK: [Gipuzkoako Foru Aldundia](#), Udalak, [Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa](#).

NORENTZAT: Eskola kiroleko programan era inklusiboan parte hartu ezin duten eskola-umeak.

NOLA: Erabiltzaileak Kirol Egokituaren federazioaren aurrean egingo du izen ematea, ikastetxeak izen ematea formalizatzeko eskola kiroleko aplikazioaren bitartez altan emango du.





NON: 2021/22 ikasturtean eskaintza hau duten udalerrriak: Goierri, Bergara, Hondarribia, Irun, Donostia, Oarsoaldea, Buruntzaldea, Urola erdia, Urola Kosta, Urola Garaia, Villabona, Debabarrena behera, Eibar, Elgoibar, Arrasate, Oñati, Tolosaldea, Aiztondo eta Leintz.

INFORMAZIOA: Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa. 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: SEGI. Maparen esteka

4. Eskola Kirol Inklusiboa.

ZER: Funtsa da premia berezietako eskola-umeak identifikatu eta ohiko eskola-kirol eskaintzan sarbidea erraztea. Horretarako, familia eta eskolekin batera, inklusioa oztopatzen duten baldintzatzaileak identifikatu eta eskola-umea lagunduko dugu zerbitzu horrekin.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa, ikastetxeak, desgaitasuneko elkarteak.

NORENTZAT: Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioak ez-gaitasunaren alorreko elkarte eta ikastetxeekin batera detektatutako kasu pilotu batzuk.

NOLA: Detekzioa egin ondoren, ikaslearen familia eta inguruko eragileei laguntza espezifikoko zerbitzua eskainiko zaie, bere eskolaren ohiko eskola kiroleko taldean era inklusiboan parte dezan.

NON: Gipuzkoako hainbat udalerrietan.

INFORMAZIOA: Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa. 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: ONGISEGI

5. Eskola kiroleko gida. Kirol egokitua.

ZER: Eskola kirolako programa barruan dauden ekintzetarako kirol egokitua garatzeko baliagarria den gida.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Eskola kiroleko monitoreak eta bestelako jarduera fisikoko eragileentzat.

NOLA: Aldundiak gaian adituak diren profesionalak Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren bitartez. Lana 2022an argitaratua da.

NON: [Eskola Kirol Inklusiboa - Nuevo GKEF \(gkef-fgda.org\)](http://Eskola Kirol Inklusiboa - Nuevo GKEF (gkef-fgda.org))

INFORMAZIOA: Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa. 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: SARTU.

6. Gipuzkoako Kirol Orientazio Zerbitzuak eta bideratzea.

ZER: Mugiment Gipuzkoa estrategiaren barruan, Kirol Orientazio Zerbitzuetako teknikariek formazioa jasoko dute desgaitasunaren aurreko erronkei aurre egiteko. Gainera, tokiko eta lurraldeko baliabide mapa izanik aukerak izango dituzte premia bereziko herritarrei aukera desberdinak eskaintzeko.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia, udalak.

NORENTZAT: KOZ duen udalerriko ez-gaitua den herritar orori zuzendua.

NOLA: Tokian tokiko artatze ereduaren arabera.

NON: Tokian tokiko artatze ereduaren arabera.

INFORMAZIOA: Gipuzkoako Foru Aldundia, Kirol zerbitzua. 943. 112 497 / kirolak@gipuzkoa.eus





KATEGORIZAZIOA: SARTU. Maparen esteka.

7. Hegalak Fundazioko OngiSegi eta HobeSegi programak.

ZER: Mendekotasun handi eta zailtasun ekonomikoak dituzten herritarrei zuzendutako programa iragankorrak dira. Programa hauek xede dute herritarraren erabateko kirol ahalduntzea gauzatzea; bai, kirol normalizatuaren bidetik edota, kirol-egokitukoaren bidetik ere.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostiako Udala, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioa, Hegalak Fundazioa.

NORENTZAT: Programaren onuradun izateko hautagai baldintzak bete eta hautatuak diren herritarrak.

NOLA: [Hegalak fundazioak egindako deialdian parte hartuz.](#)

NON: Hegalak Kirol Zentroa. Cervantes plaza, 2. Donostia.

INFORMAZIOA: [Hegalak Fundazioa](#). 943. 433. 680 / info@hegalakfundazioa.org

KATEGORIZAZIOA: HOBESSEGI

8. Ez-gaitasuna duten pertsonentzat kirol jarduerak sustatzea: Udal, Ikastetxe eta Klubetarako dirulaguntzak.

ZER: 2022ko diru-laguntzetako oinarrietan Aldundiaren ereduaren sailkapen irizpideak ezarri dira. Horrela, gure irizpideak ezagutzera ematearekin batera, antolatzaileek eskaeren bidez beren jarduerak sailkatzen eta antolatzen hasiko dira.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Jarduera Fisiko egokituko antolatzaileak.

NOLA: Berariazko desgaitasun diru-laguntza bidez.

NON: [Diru laguntza kudeaketarako aplikazio informatikoaren bidez.](#)

INFORMAZIOA: [Gipuzkoako Foru Aldundia, Kirol zerbitzua](#). 943. 112 497 / kirolak@gipuzkoa.eus

KATEGORIZAZIOA: SEGI

9. Gipuzkoako kirol egokituko lehiaketa ofizialak antolatzea.

ZER: Gipuzkoako ondorengo Kirol Egokituko 6 txapelketa ofizial hauek antolatzea: Igeriketa, Ziklismoa, Slalom, Boccia, Atletismo eta Goalball.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Kirol egokituko errendimenduko kirolarientzat.

NOLA: Gipuzkoako Kirol Egokituko federazioaren bidez.

NON: Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa.

INFORMAZIOA: [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#). 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: SEGI.

10. Kirol egokituko kirolarien teknifikazio programak.





ZER: Diziplina arteko laguntza, goi mailako proiektzioa duen kirolariari.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Errendimendurako gaitasun bereziak adierazten dituzten kirolarientzat.

NOLA: Teknikifikazio programen bidez.

NON: Federazioaren deialdien arabera eta [Hegalak Fundazioan](#).

INFORMAZIOA: [Gipuzkoako Kirol Egokituko Federazioa](#). 943 462 514 / info@gkef-fgda.org

KATEGORIZAZIOA: SEGI / SARTU.

11. Etorkizuneko eta talentudun kirolariak.

ZER: Gipuzkoako Foru Aldundiak etorkizuneko eta talentudun kirolarien izendapen ofiziala egiten du eta zerbitzuak eta laguntzak ematen dizkie kirolerako gaitasun bereziak dituzten kirolari gazteei (18 urtera artekoak).

NOIZ: Laguntzen deialdiak urteko lehenengo hiru hilabetekoan agertu ohi dira.

NORK: Gipuzkoako Foru Aldundia.

NORENTZAT: Izendatua izateko baldintzak betetzen dituzten kirolari gazteak (18 urtera artekoak).

NOLA: Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean eskaera egin.

NON: Gipuzkoako lurraldean.

INFORMAZIOA: [Gipuzkoako Foru Aldundia, Kirol zerbitzua](#). 943. 112 497 / kirolak@gipuzkoa.eus

KATEGORIZAZIOA: SARTU.

12. Kirolgi Fundazioaren programak: goi mailako kirola.

ZER: Kirolgi Fundazioak dirulaguntzak eta zerbitzuak ematen dizkie goi mailako kirolari eta ekipoei.

NOIZ: Laguntzen dialdiak urteko lehenengo hiruhilabetekoan agertu ohi dira.

NORK: Kirolgi Fundazioa.

NORENTZAT: Goi mailako kirolak, kirol merituen arabera. 18 urtetik gorakoak.

NOLA: Kirolgi Fundazioaren aurrean eskaera egin.

NON: Gipuzkoako lurraldean.

INFORMAZIOA: [Kirolgi Fundazioa](#). 688618768 / fundazioa@kirolgi.org

KATEGORIZAZIOA: SARTU.

